

# Atalaia

La lettre du CPIE Littoral basque  
CPIE Euskal Itsasbazterraren **aldizkaria**



Des  
**manchots ?**  
sur la **Corniche ?**

**Pinguinoak ?**  
**Erlaitzean ?**



CPIE Littoral Basque - Euskal Itsasbazterra

Larretxea - Domaine d'Abbadia - 64700 Hendaye / Hendaia

tel: (00 33) 5 59 20 37 20 - [cpie.littoral.basque@hendaye.com](mailto:cpie.littoral.basque@hendaye.com) - [www.cpie-littoral-basque.eu](http://www.cpie-littoral-basque.eu)

#20

# sommaire aurkibidea

Sarhiza | Édito .....2

Uraren problematika  
Problématique de l'eau .....3

Oinezko arrantza  
Barbara Ryckewaert .....4-7

Bestearen lotura  
Le lien de l'autre .....8-9

Pinguinoen inbasioa  
Invasion  
de manchots .....10-12

"La Corniche se révèle" ....13  
Suzanne Husky.....14

Arte praktikak  
Pratiques artistiques.....15

CPIE ziurtagiria  
Le label CPIE .....16-17

Abadiak azalberitzen  
Abbadia fait  
peau neuve .....18-19

Asporotsttupi.....19

Bazkide izan!  
Adhérez! .....20



## Atalaia #20

bulletin de liaison du  
CPIE Littoral Basque

### Photos

CPIE Littoral basque

### Directrice de publication:

Laurence Lassalette

Coordination: Ganix Grabières

Date de diffusion: février 2015

N° ISSN: 2114-1851

### Conception, réalisation et traductions

iF diseinuar

05 59 93 05 61 - Uztaritze

www.if-matxikote.eus

info@if-matxikote.eus

Imprimé sur papier recyclé  
avec encres végétales

Papera berziklatuan inrprintatua,  
tinta begetalag baliatuz



## Édito

Laurence Lassalette, présidente du CPIE Littoral Basque

lassalette.laurence@neuf.fr

Les premiers vents de sud nous rappellent à la Corniche Basque. Cet automne, elle nous propose plusieurs rendez-vous :

• le 19 septembre, dans le cadre des 30 ans de la politique départementale en matière d'espaces naturels sensibles et du 40<sup>e</sup> anniversaire du Conservatoire du littoral, à l'initiative du CPIE et en partenariat avec le Lycée agricole de St Pée et la chambre d'agriculture, des producteurs locaux nous ont accueilli sur le parvis d'Asporotsttupi afin de mieux faire connaître notre économie locale.

• le 27 septembre, la Corniche est en fête ; d'Abbadia à Socoa, les fidèles retrouvent les animations et points de rencontre habituels. Cette année, une colonie étrange...étrange...se glisse parmi les badauds, pour venir questionner la population. Je salue les artistes Stefano Bonadonna et Luc Richard, auteurs de l'oeuvre originale "Manchotsdevant".

• Après avoir été inauguré officiellement le 26 septembre, le 15 octobre "Asporotsttupi - Maison de la Corniche basque" ouvrira enfin ses portes au public. A partir de ce véritable centre d'interprétation le CPIE proposera des visites et des expositions temporaires, pour découvrir le domaine. La première exposition en place du 15/10 au 15/12 concernera l'érosion côtière. Elle sera accompagnée de sorties et conférences qui ouvriront le débat sur le changement climatique. Pensez à consulter le programme !

...et pendant ce temps, un groupe de bénévoles et salariés du CPIE se retrouvera en réunions studieuses pour réfléchir sur le projet associatif, et le redéfinir. Le CPIE Littoral basque doit rester un partenaire reconnu du territoire.

A VOIR en automne, l'exposition des céramiques de Suzanne Husky (artiste en résidence création) à l'école d'Art de l'ACBA.

A DECOUVRIR en automne, les ateliers de pratique artistique organisés par le service culturel du CPIE.

Je vous souhaite de belles rencontres au côté du CPIE.



## Sar hitza

Laurence Lassalette, CPIE Euskal Itsasbazterren lehendakaria

lassalette.laurence@neuf.fr

HOGO haizeak Erlaitzera deitzen gaitu berriro. Udazken honetan, hainbat hitzordu proposatzen dizkigu:

• irailaren 19an, natur eremu sentikorren departamenduko politikaren 30. urteurrena eta Itsasbazterreko Kontserbatorioaren 40. urtemuga kari, CPIEren eskutik eta Senpereko Laborantza Lizeoaren partaidetzarekin, lekuko ekoizleek harrera egin ziguten Asporotsttipiren atarian, lekuko ekonomia hobe ezagutarazteko.

• irailaren 27a, Erlaitza festan dago; Abbadiatik Zokoara, zaleek ohiko animazioak eta topalekuak aurkituko dituzte. Aurten, kolonia bitxi... bitxia nahasiko da bisitarien artean, biztanleria galdekatzeko. "Manchotsdevant" obra originalaren egile diren Stefano Bonadonna eta Luc Richard artistak agurtzen ditut.

• irailaren 26an ofizialki estreinatua izan ondoren, "Asporotsttupi - Erlaitzeko etxea"-k bere ateak zabalduko dizkio publikoari. Benetako

interpretazio zentro honetatik CPIEek bisitak eta behin-behineko erakusketak proposatuko ditu, eremua hobe ezagutzeko. Lehen erakusketak itsasbazterren higadura hartuko du gaitzat eta urriaren 15etik abenduaren 15era iraunen du. Klima aldaketari buruzko eztabaida irekiko duten irteerak eta hitzaldiak eranskin gisa izanen ditu. Egitaraua zaindu!

...eta bitartean, CPIEren laguntzaile eta langile talde bat bilkura seriotan bilduko da elkarte egitasmoari buruz gogoetatzeko, eta berau birzehazteko. CPIE Euskal Itsasbazterrek lurraldeko partaide ezagutua egon behar du.

Udazkenean IKUSTEKOAK, Suzanne Huskyren zeramiken erakusketa ACBAko Arte Eskolan.

Udazkenean EZAGUTZEKOAK, CPIEren kultur zerbitzuak antolatutako arte praktiken tailerrak.

Ezagutza ederrak opa dizkizut CPIE lagun duzula.

# Pour une meilleure éducation à la problématique de l'eau sur le territoire du littoral basque

Pascal Clerc, Directeur

[cpie.littoral.basque@hendaye.com](mailto:cpie.littoral.basque@hendaye.com)

**D**URANT cette année 2015, nous avons développé un nouveau partenariat pour soutenir et amplifier nos actions de sensibilisation des populations au développement durable du territoire et en particulier aux enjeux liés à l'eau et au respect des milieux aquatiques.

Avec l'aide de l'Agence de l'eau Adour Garonne nous pouvons renforcer la prise en compte de la dimension EAU dans nos programmes qui concernent chaque année plusieurs milliers de personnes, élèves ou public en général.

C'est le cas, en particulier dans nos propositions éducatives pour les scolaires, les publics spécifiques, lors de nos ateliers vacances ré'Créatives, lors des sorties nature mais aussi à l'occasion de nos actions d'accompagnement du territoire, InterAGRI, coopération avec le lycée agricole, cycle de conférences, semaine du développement durable, etc...

Le territoire littoral basque propose des déclinaisons concrètes et spécifiques des problématiques "eau" : estuaires, zones humides, ruisseaux, estrans rocheux et sableux, urbanisation, territoire agricole et touristique. Une population permanente très importante vit sur ce territoire et la pression touristique renforce l'impact du

développement économique sur la qualité des eaux de baignade en particulier.

L'Agence de l'eau Adour-Garonne est un établissement public de l'État créé par la loi sur l'eau de 1964. Elle a pour missions de lutter contre la pollution et de protéger l'eau et les milieux aquatiques. Il existe en France 6 Agences de l'eau. Dotées de la personnalité civile et de l'autonomie financière, elles sont placées sous double tutelle : celle du ministère du Développement durable et celle du ministère des Finances.

Elles visent à mettre en place une gestion démocratique de l'eau par l'organisation, par grand bassin hydrographique, de débat public et cela depuis près de 50 ans !

Ces Agences sont aussi un levier d'actions financières car elles perçoivent des redevances pour pollution de l'eau et par rapport aux prélèvements sur les principes de "pollueur/payeur" et de "préleveur/payeur".

Grâce à cet argent, elles attribuent des aides aux maîtres d'ouvrage et acteurs de l'eau (collectivités, entreprises, agriculteurs, associations, particuliers) pour les aider à s'équiper

d'ouvrages de dépollution, de création de ressources en eau ou les inciter à réaliser des économies d'eau.

La finalité de l'Agence concernant notre territoire est de contribuer par une approche transversale à l'atteinte du bon état pour toutes les eaux du bassin Adour-Garonne et rechercher l'équilibre entre ressources disponibles et besoins en eau.

Une finalité pour laquelle notre CPIE peut s'engager durablement de toutes ses forces aux côtés de l'Agence dans les mois et années à venir ...

infos + [www.eau-adour-garonne.fr](http://www.eau-adour-garonne.fr)

## Uraren problematikarako heziketa hobe baten alde Euskal Itsasbazterreko lurraldean

Pascal Clerc, Zuzendaria

[cpie.littoral.basque@hendaye.com](mailto:cpie.littoral.basque@hendaye.com)

**2**015EKO uda honetan, partaidetza berri bat lotu dugu, biztanleria, lekuko garapen iraunkorrari, eta bereziki urari eta ur inguruneen begiruneari loturiko apustuei sentsibilizatzeko ekintzak egonkortzeko eta biderkatzeko. Aturri-Garonako Ur Agentziaren laguntzari esker, urtero milaka jende, ikasle edota publiko zabala hunkitzen duen gure egitarauan URaren dimentsioaren kontuan hartzea indar dezakegu.

Horrela da ikasleriari edota publiko bereziei zuzenduriko gure hezkuntza saioetan, oporraldietako sorkuntza tailerretan, natur irteeretan baita lurralde laguntzarako ekintzen kari, InterAGRI laborantza lizeoarekin lankidetzan, hitzaldi saioetan, garapen iraunkorraren astean eta abarretan ere.

Euskal itsasbazterreko lurraldeak "URA" problematikaren deklinazio zehatz eta bereziak eskaintzen ditu: estuarioak, hezeguneak, errekatoak, marearteko eremu arrokatsu eta haretsuak, hiriak, laborantza eta turismo lurraldea. Biztanleri iraunkor handia bizi da lurralde honetan, eta tu-

rismoaren presioak, garapen ekonomikoak bainatzeko uraren kalitatean bereziki duen eragina areagotzen du.

Aturri-Garonako Ur Agentzia erakunde publikoa da, 1964ko urari buruzko legearen bidez Estatuak sorturikoa. Bere zeregina, ura eta ur inguruneen kutsaduraren aurka aritzea eta horien babestea da. Frantses estatuari, 6 Ur Agentzi daude. Pertsonalitate zibila, diru-autonomia, eta tutoretza bikoitza badute: Garapen iraunkorrerako ministerioarena bata, eta finantza ministerioarena bestea.

Uraren kudeaketa demokratikoa plantan ezartzea dute helburu, arro hidrografikokoa eztabaidak antolatuz, eta hori, kasik azken 50 urtetan!

Agentzia horiek finantza ekintzen palanka dira ere, uraren kutsatzeagatik edota "kutsatzen duenak ordaindu egiten du" eta "hartzen duenak ordaindu egiten du" printzipioen arabera zergak hartzen dituztelako.



Diru horri esker, uraren obralari eta eragileei (lekuko administrazio, enpresa, laborari, elkarte eta norbanakoei) diru laguntzak ematen dizkiete, kutsatzea apaltzen duten eta ur baliabideak sortzen dituzten tresneriez hornitzen laguntzeko, edota ur aurrezpena egiten bultzatzeko.

Gure lurraldeari doakionez, Agentziaren helburua, Aturri-Garonako arroko ur guztien egoera ona lortzeko zeharkako hurbilpenean eragitea, eta dauden ur baliabideen eta beharren arteko oreka aurkitzea da.

Gure CPIErentzat, datozen hilabete eta urteetan, Agentziarekin batera indar osoz eta iraunkorki engaiatzeko aukera ematen duen helburua ...

Xehetasun gehiagorako: [www.eau-adour-garonne.fr](http://www.eau-adour-garonne.fr)

# "Les dents de la mer, petites morsures, visions fragmentaires et sédimentaires", une interview en fin de résidence

Elke Roloff, Chargée de mission culture  
cpielittoralbasque.creation@hendaye.com

Barbara Ryckewaert a été sélectionnée pour une résidence de création / médiation, un nouveau projet lancé par le CPIE en partenariat avec la Région Aquitaine, le Conservatoire du littoral et cofinancé par le projet Txinbadia 14/15.

**P**our cette résidence, mise en place pour la première fois fin 2014 et grâce au cofinancement européen, Barbara Ryckewaert a bénéficié d'un prolongement de trois mois, donc un total de six mois de résidence où elle a confronté ses productions à celles du public participant. Barbara a développé des projets avec des groupes d'élèves de l'IME Plan Cousut de Biarritz, un groupe de mamans accompagnées de leurs enfants de l'association "Le Trait d'Union" d'Hendaye ainsi qu'un groupe d'adultes qui a répondu favorablement à notre invitation de stages gratuits "art et science". Dans un entretien avec elle, nous retraçons les six mois de résidence. En voici un extrait.

## Quelles ont été tes motivations pour postuler à notre appel à projet ?

J'ai postulé par rapport au lieu, au Domaine, par rapport à la Corniche que je connaissais depuis mon enfance puisque j'ai grandi au Pays Basque. C'est un endroit qui me plaît énormément. Ensuite, la partie médiation de cette résidence m'intéressait beaucoup. C'est ma toute première résidence et l'idée d'échanger avec un public et d'avoir un temps dédié uniquement à la création, sans qu'il y ait une vraie commande derrière ou obligation d'un résultat, me plaisait bien.

## "Itsasoaren hortzak, ziztada txikiak, zatikako eta sedimentuzko ikuspegiak", egonaldi bukaera baten elkarrizketa

Elke Roloff, kultur misioen arduraduna  
cpielittoralbasque.creation@hendaye.com

Barbara Ryckewaert, sorkuntza/bitartekaritza egonaldi baterako hautatua izan zen. Egonaldi hau CPIEk bultzaturikoa zen, Akitania Eskualdea eta Itsasbazterreko Kontserbatorioarekin partaidetzan, eta Txinbadia 14/15 egitasmota bidez partez diruztatua.

**E**gonaldi honentzat, lehen aldiz 2014. urte bukaeran plantan ezarria eta Europako diruztatze partekatuari esker, Barbara Ryckewaertek hiru hilabeteren luzapena izan zuen, egonaldia sei hilabetera pasatuz, zeinean bere sorkuntzak parte hartu zuen publikoarenekin parekatu ahal izan zituen. Barbarak egitasmota zuzentzeko garatu zituen Biarritzeko IME Plan Cousut-ko ikasle taldeekin, baita Hendaiako "Le Trait d'Union" elkartearekin ere, edota "arte eta zientzia" doako ikastarorako luzatu genuen gomitari baiezkoarekin erantzun zuen heldu talde batekin ere. Berarekin izandako elkarrizketan, egonaldiko sei hilabeteak ditugu hari harturik. Horra, ondoko lerroetan, honen laburpena.

## Zein izan dira zure motibazioak gure egitasmota deialdiari erantzuteko?

Lekuagatik, eremuagatik izena eman dut, Euskal Herrian hazi naizenez nire haurtzarotik ezagutzen dudana erlaintzat. Anitz gustatzen zaidan lekua da. Honekin, egonaldi honen bitartekaritza aldeak biziki erakarri nau. Nire lehen-lehen egonaldia da, eta jendearekin harremanetan izateak eta soilik sorkuntzari zuzenduriko tarte bat izateak, gibelean egiazko manaketarik edo derrigorrezko emaitza beharrik izan gabe, gustatu zait.

## Egonaldiaren hasieratik publiko ezberdinekin aritu izan zara. Nola bizi izan duzu eta nolakoak izan dira topaketa horiek?

Aski naturalki izan da egun batetik bestera ez baita gertatu. Ez gara segidan tailerrera sortzera joan. Murgiltze horretan eta, anitzen kasuan, eremua lehen aldiz ezagutzen zuen jende honekin ezagutu dut, nik ere, eremua. Parte-hartze egitasmota topaketatik sortu dira. Eztabai-datu, pentsatu behar zen, baita nire ikuspegi

### Dès le début de la résidence tu as travaillé avec différents publics, comment l'as-tu vécu, et comment se sont déroulées ces rencontres ?

Cela s'est fait assez naturellement dans le sens où ça n'a pas été du jour au lendemain. Nous ne sommes pas tout de suite partis dans l'atelier pour créer. J'ai découvert le domaine dans cette immersion et avec ce public, qui pour beaucoup, découvrait le domaine pour la première fois. Les projets d'interventions ont été amenés par des rencontres. Il fallait discuter, se projeter et présenter aussi ma vision des choses, se familiariser et expliquer ce que je faisais ici et comment je travaille. La plupart des gens ne savent pas forcément ce que vient faire un artiste en résidence. Dans ma candidature, j'avais fait des propositions d'ateliers très concrètes, avec un certain

nombre d'heures, un déroulement possible etc. mais sans savoir quel public j'allais rencontrer. Puis une fois sur le terrain, il fallait m'adapter aux groupes, voir en fonction de la réceptivité du public et construire ensemble. D'un coup, je n'ai gardé que des idées, des directions générales qui peuvent être abordées de différentes manières avec différents média et qui ont un écho différent, selon les personnes. Comme par exemple le rapport entre le souvenir et le paysage, l'observation et le découpage, la représentation et surtout la perception d'un paysage à travers quelque chose comme l'objet. Je n'ai pas tout de suite réfléchi au comment j'allais dérouler les séances. Ces thématiques portaient de questionnements que j'avais déjà et que j'ai déjà abordés sous différentes formes. Je savais qu'il y aurait une sorte de ping-pong entre ce que j'allais faire

Atelier d'expérimentation  
en plein air avec  
Barbara Ryckewaert,  
Maité Rivière et  
un groupe d'adultes



Esperimentazio tailerra, kanpoan,  
Barbara Ryckewaert,  
Maité Rivière eta  
heldu talde batekin.

aurkeztu ere, ohitu, eta hemen zertan nenbilen eta nola lan egiten nuen azaldu. Jende gehienak ez daki egonaldian dagoen artista bat zertan dabilen. Nire hautagaitzan tailer proposamen biziki zehatzak egin nituen, ordu kopuru batekin, balizko garapenarekin, etab. Baina topatuko nuen publikoa ezagutu gabe. Eta behin lekuan izanik, taldeei egokitu behar izan dut, publikoaren harmenaren arabera, eta elkarrekin eraiki. Azken finean, ideiak besterik ez ditut atxiki, era eta bitarteko ezberdinetan landuak izaten ahal diren norabide orokorrak, jendearen arabera oihartzun ezberdina izan dezaketelarik. Oroitzapena eta paisaiaren artekoa bezala adibidez, edota behaketa eta mozketak, paisaiaren irudikapena eta bereziki honetaz dugun pertzepzioa gauza baten bitartez. Ez nuen segidan pentsatu saioak nola garatuko nituen. Gaiak jadanik nituen, eta era batez edo bestez jadanik landu ditudan galdeketa batzuetatik abiatzen ziren. Banekien

eginen nuena eta tailerlean eginen genuenaren arteko joan-jina izanena zela. Gaur, denen arteko egiazko eraikuntza izan dela erran nezake, eta denbora berean, nire ikerketa pertsonaletarako pistak eta gogoetak ekarri dizkit.

### Zein bitarteko baliatu duzu?

Argazkia eta bideoa nire egitasmoen sarbideak izaten dira askotan, lasaitasuna eta erraztasuna ematen didaten bitartekoak dira, nolabaiteko erosotasunean nago horiek erabiltzerakoan. Egonaldi hasieran "ezagutza eta murgiltzea" parte egin ahal izan dut bide horretatik. Ondoren, grabatzea bezalako eta sekulan baliatu ez nituen beste bitartekoak entseatu ditut, plakak eta euskarri ezberdinak puntta idor batekin igurtzi, papera landu. Marrazten aritu naiz ere aspal-diko partez, eta behaketarako gai eta tresnen sorkuntza entseatu dut. Orain arte, bolumena oso gutxitan landu izan dut. Egonaldi honek,

nire buruari "dena egingarria da eta ahal dut" errateko balio izan dit. Ikuskatze espazio-denbora bat izan da, ikuspegi guztietatik begiratuta.

### Hiruhilabeteko egonaldia birritan gozatu duzu, epe aski luzea. Nola kudeatu duzu denbora, orokorrean eta bigarren denboraldi honetan?

Beti luze eta motz izaten da, baina zorionez, bi egonaldi epeen artean eten bat izan da, fisikoki urruntzeko balio izan didana eta bigarren denboraldiari hobe ekiteko<sup>1</sup>. Bestelako galdeketa batzuetara jotzeko, eta tailerrak beste era batez, behar ba pixka bat formalagoa, pentsatzeko aukera eman dit ere. Bigarren denboraldi honetan, eta eguraldia ederra eta baldintza guztiak horretarako ematen bazuen ere, eremuan paseatzen baino

et ce qu'on allait faire en atelier. Avec le recul, je peux dire que c'était une vraie construction commune et parallèlement cela m'a donné des pistes, des réflexions dans mes recherches personnelles.

### Tu as travaillé avec quels média ?

La photo et la vidéo sont souvent mes points d'entrée pour un projet, ce sont des média où je me sens à l'aise et où j'ai des facilités, je suis dans un genre de confort quand je les utilise. Cela m'a permis de faire la partie "découverte et immersion" en début de ma résidence. Ensuite, j'ai aussi expérimenté d'autres média comme la gravure, chose que je n'avais jamais faite, gratter des plaques, différents supports avec une pointe sèche ou travailler le papier. Je me suis remise également au dessin et j'ai expérimenté la réalisation de petits objets et d'outils d'observation. Jusqu'ici j'avais

rarement travaillé le volume. Ce temps de résidence m'a permis de me dire tout est possible et je peux me permettre. C'était un espace temps d'exploration à tous points de vue.

### Tu as bénéficié deux fois de trois mois de résidence, une période assez longue. Comment-as tu géré le temps en général et durant cette deuxième période ?

C'est toujours à la fois long et court, mais heureusement il y avait une coupure entre les deux résidences qui m'a permis de m'extraire physiquement pour mieux appréhender la deuxième période.<sup>1</sup> Cela m'a permis de partir aussi sur d'autres questionnements et d'autres façons de concevoir des ateliers, peut-être un peu plus formelles. Durant cette deuxième période j'avais l'impression de travailler plus en atelier et de moins aller me promener sur le domaine alors que c'était la période de beau temps où tout s'y prêtait. Mais ma période de découverte et d'immersion était passée et d'un coup je me suis plus

concentrée sur la production et je me suis plus installée à Nekatoenea. J'avais l'impression d'être à la maison et de pouvoir travailler sans me préoccuper du reste. Cette deuxième période était à la fois une continuité et complètement autre chose que la première.

### Dans la deuxième période tu avais proposé des stages art et science. Peux-tu nous en dire d'avantage ?

Pour le travail avec le public j'ai proposé des ateliers d'expérimentation avec l'idée d'essayer d'amener des adultes à se mettre dans la peau d'un artiste en résidence. Avec seulement une séance par semaine et aucune obligation d'un suivi cela n'a pas été vraiment évident. J'ai proposé donc des séances d'une journée ou d'une demi-journée sur la base d'un médium différent à expérimenter. La photo, le dessin, le volume, la vidéo et le son, des disciplines en écho à ma démarche personnelle. Il n'y a pas eu de construction commune ou un aboutissement concret au bout de ces séances. J'aurais aimé que cela leur permette de progresser peut-être et qu'un échange de médium s'opère avec l'idée d'aboutir à quelque chose. Peut-être que des adultes vont avoir besoin aussi d'un peu plus de temps pour s'installer dans les choses, se libérer surtout du regard des autres par rapport à ce qu'ils font, se projeter et être dans la même démarche "on va s'interroger sur un sujet et aller en profondeur". Dans cette période, les ateliers ont été axés sur la géologie. Cette thématique est venue plutôt à la fin de la première période, au mois de mars, à partir d'une vidéo que j'ai réalisée sur un des Jumeaux qui souffle. En hiver la roche est plus à nu, on la distingue mieux du reste et on va plus facilement du côté des falaises. En tout cas, pour moi ça a été aussi une vraie découverte. Jusqu'à présent, je m'attachais plus à la construction, le bâti humain et le végétal. En arrivant ici je n'avais pas vu cet aspect-là comme une possibilité de travail. Aussi, depuis très longtemps et



denbora gehiena tailerrean lanean pasatzen nuela sentsazioa izan dut. Baina nire ezagutza eta murgiltze garaia amaitu zen eta bat-batean ekoizpenean zentratu naiz, eta Nekatoenean gehiago errotu naiz. Etxean izateko eta beste ezertaz arduratu gabe lanean aritzeko ahal izatearen sentsazioa nuen. Bigarren denboraldi hau lehenengoaren segida eta denbora berean erabat beste zerbait izan da.

### Bigarren denboraldi honetarako arte eta zientzia ikastaroak proposatu zenituen. Azaltzen ahal zeniguke?

Publikoarekin lanean aritzeko experimentazio tailerrak proposatu nituen, helduak egonaldian den artista baten larruan sartzen saiatzeko helburuarekin. Astean saio bakarrarekin eta jarraipenerako inolako bete-beharrik gabe ez da biziki erraza izan. Egun oso ala erdiko saioak proposatu ditut beraz, esperimintatzeko bitarteko ezberdin bat oinarri hartuz. Argazkia, marrazkia, bolumena, bideoa eta soina, nire izapide pertsonalarekin loturiko arloak. Ez da denen arteko eraikuntzarik izan edota horrelako emaitza konkreturik saioen buruan. Gustatuko litzaidake hobetzeko bidea eman balie behar ba, eta zerbaitetara iristeko ideiarekin batera bitarteko trukaketa gauza baledi. Behar bada helduek denbora gehiago behar dute gauza batean sartzeko, egiten dutenarekiko besteek duten epaiaz askatzeko, "gure burua gai bati buruz galdekatuko dugu

eta sakonduko dugu" izapide berdin horretara hurbiltzeko eta sartzeko. Denboraldi horretan, tailerrak geologiari zuzenduak izan ziren. Gai hori lehen denboraldiaren amaieran agertu zen, martxoan, ufatzen duen bikietako bati buruz sortu dudán bideo batetik abiatuz. Neguan, arroka biluziagoa da, ingurunetik nabariagoa da eta errazagoa da erlaitzen aldera joatea. Dena den, niretzat ere benetako aurkikuntza izan zen. Ordura arte, eraikuntzek, gizakiak eraikitakoek eta begetalak zidaten arreta erakartzen. Hona iristerakoan ez nuen ikuspegi hori lan ildo gisa aurreikusia. Egia da, aspalditik eta beste egitasmotan, zientziarekiko harremanaz amestu nuela, horren bila inoiz joan gabe. Gaitasun horiek dituen jendea badago, hemen, CPIEn. Aukera bazen beraz, horren esperimintatzeko eta artea eta zientziaren topaketa honetatik aterako zitekeena ikusteko. Maité Rivière birritan batu zitzaigun. Gauzek elkarrirantzun dezakete, zientzia diskurtsotik eta arte pertzepzioa edo interpretazioa. Maiteren ikuspegia, bere ekarpena azalpenetan, gauzak beste era batez ikusteko laguntzen du zinez. Bera gabe egingen ez ziren beste interpretazio eta esperimintazio batzuk ahalbideratu ditu.

### Egonaldi honen egitarauak zenbait ekintza biltzen ditu, aurkezpen hitzloak, tailer irekitzeak, publikoarekiko biziorduak, zure lanari pentsatu behar da, argitalpen egitasmo bat, baita zure eta publikoaren ikerketak

sur d'autres projets, j'avais fantasmé sur ce rapport possible avec la science, sans jamais trop chercher à le développer. Il y a des personnes ici au CPIE qui ont ces compétences-là. D'un coup, c'était l'occasion de l'expérimenter et voir ce qui peut sortir de cette rencontre entre l'art et la science. Maïté Rivière s'est jointe à nous à deux reprises. Les choses peuvent se faire écho, à la fois entre le discours scientifique et la perception ou l'interprétation artistique. Le regard de Maïté, son apport en explications a vraiment permis de voir les choses sous un autre angle et a permis d'autres interprétations et expérimentations qui ne se seraient pas faites sans elle.

**Le programme de cette résidence comporte un certain nombre d'actions, les présentations publiques, ouverture d'atelier, interventions avec le public, il faut penser à son propre travail, un projet d'édition et une restitution de la résidence sous forme d'une exposition qui devait mettre en dialogue tes propres recherches avec celles du public. Est-ce que cette exposition de fin de résidence prend beaucoup de place ?**

Oui, il y a des moments de doutes, mais en même temps c'est bien aussi parce que cela motive d'avoir un but qui clôture un projet. A un moment donné, on a envie de montrer ses productions aux autres. Une fois qu'on a produit en atelier, on veut sortir de "l'isolement" pour ne pas tourner en rond, pour avancer quel que soit le retour. L'exposition permet ça, mais aussi d'autres formes comme les portes ouvertes d'atelier qui ont lieu en milieu de la résidence. Elles étaient aussi très bénéfiques dans ce sens-là et pour le coup sans le stress d'une présentation particulière, ou d'un nouveau lieu à gérer et à investir. Une vraie exposition a toujours cet aspect fini, on expose des œuvres et pas forcément un état de travail ou des étapes de recherches que j'ai montrés dans l'exposition "Les dents de la mer, petites morsures, visions fragmentaires et sédi-

mentaires". Et faire communiquer mes œuvres avec celles des participants n'a pas été une difficulté parce que tout s'est fait en même temps, sur les mêmes thèmes et questionnements. L'une répondait à l'autre et pour moi c'était clair dès le départ qu'il fallait créer un pont entre nos réalisations.

Il y a également le projet d'édition<sup>2</sup>, l'idée de réunir la production, la rendre visible sous une autre forme tout en gardant cet aspect de recherche. Elle est en cours de réalisation. Il y aura une part importante d'images, plus que de texte ou du déroulé. L'idée est aussi de faire vivre ensuite ce rendu sous forme papier et au-delà de la résidence. Cela aura la forme d'un objet d'art, une série limitée, numérotée dans des coffrets faits main dans lesquels s'insèrent trois petits livrets. Un de ces livrets sera consacré au travail avec les différents publics, dont toutes les productions qui ont été faites, puis un autre sera dédié à mes productions et un dernier qui sera consacré aux recherches, comme un cahier de croquis. Des mini productions, tirages ou dessins viendront se glisser par-ci par-là. Je travaille pour cela avec le graphiste Mickael Barret. C'est aussi une création à part entière et une transition pour finir en douceur ces six mois.

<sup>1</sup> *Barbara a commencé la résidence en octobre 2014 jusqu'en février 2015 puis d'avril à fin juillet 2015*

<sup>2</sup> *Pour la sortie de l'édition de Barbara Ryckewaert le CPIE organisera une petite présentation au mois d'octobre en présence de l'artiste à NEKaTOENEa. L'information et les dates exactes vous seront communiquées sur notre site, page facebook et par mailing.*

**harremanetan jarriko zituen erakusketa baten forma hartuko zuen egonaldi bilduma bat ere. Egonaldi amaierako erakusketa honek leku anitz hartzen ote du?**

Bai, zalantza uneak badaude, baina denbora berean ongi da, egitasmoari amaiera eman duen helburu bat izateak animatzen baitu. Une batez, sortutakoa beste jendeari erakutsi nahi zaio. Tailer bat emana delarik, "isolamendutik" atera nahi da, itzulika ez hasteko, aitzina joateko, itzulerako edozein izanik ere. Erakusketak horren aukera ematen du, baina baita egonaldi erdialdean izandako tailer ate irekitzeek ere. Zentzu horretan ere biziki emankorrak izan ziren, aurkezpen berezi baten edota kudeatu eta inbestitzeko leku berri baten estresa gabe aldiz. Egiazko erakusketa batek amaiturikoaren itxura du beti, obrak erakusten dira, ez ordea lan baten egoera edota ikerketa baten urratsak "Itsasoaren hortzak, ziztada txikiak, zatikako eta sedimentuzko ikuspegiak"<sup>2</sup> erakusketan erakutsi dudana bezala. Eta ez da zaila izan nire obrak parte hartu zutenen obrekin harremanetan sartzeko, dena betan egin baitzen, gai eta galdeketa berdinekin. Batak bestearekin erantzuten zion eta niretzat, argi zen, gure sorkuntzen arteko zubia sortu behar zen.

Argitalpen egitasmoa<sup>3</sup> bada ere, sortutakoak bilduko ideia, beste forma batez ikusgai uzteko, ikerketa itxura mantenduz denbora berean. Bidean dago. Irudiak nagusi izanen dira testuare-

kin konparatuz. Asmoa, emaitza, paperean eta egonalditik baino harago bizi araztea da ere. Arte objektu baten forma hartuko du, kopuru mugatua, zenbatua, hiru liburuxka bilduko dituen eskuz egindako kutxatxoan. Liburuxka horietariko bat publikoarekin egindako lana bilduko du, sorkuntza guztiakin. Bigarren batek nire sorkuntzak ekarriko ditu. Azkenak, ikerketa lanak bilduko ditu, zirriborro liburuxka bat bezala. Ekoizpen txiki batzuk, tirak, marrazkiak txertatuko dira han-hemenka. Horretarako Michael Barret grafistarekin lanean dihardut. Benetako sorkuntza da ere eta sei hilabete horiek goxoki bukatzeko transizioa bada.

<sup>1</sup> *Barbararen egonaldia 2014ko urritik 2015eko otsailaren 15era, eta berriz 2015eko apiriletik uztailea amaierara izan zen.*

<sup>2</sup> *Les dents de la mer, petites morsures, visions fragmentaires et sédimentaires*

<sup>3</sup> *Barbara Ryckewaerten argitalpenaren estreinatzeke, CPIEK aurkeztutako bat antolatuko du, urrian, artistarekin, Nekatoenean. Xehetasunak eta egun zehatzak web gunea, facebook eta eposta bidez jakinaraziko ditugu.*

# Le lien de l'autre

Agnès Nogues, coordinatrice pédagogique  
anogues@pep64.org

**C** A A COMMENCÉ comme une histoire de petits princes et d'une magicienne par un apprivoisement mutuel, on s'est rencontré, chacun a questionné l'autre du regard, de ses pointes de mots. Qui es-tu, que fais-tu, que vois-tu, nous entendrons-nous ?

Nos échanges se sont déclinés par courriel, échanges de photos, de points de vue, d'échos sonores "de chez nous" à ton nouveau "chez toi".

Comme ça, ceux d'entre nous pour qui l'étrange étranger se manifeste sitôt le portail franchi ont pu donner à voir de leurs "alentours" en réponse à tes découvertes... Etre dans le dialogue, fragile, chaotique mais persévérant : une fourmi pour une brebis, une maisonnette contre une fenêtre ouverte, un chêne debout contre de souples bambous...

Certains d'entre nous t'ont rejoint sur ton domaine éphémère... Partir sur une terre qu'on découvre, si proche mais qui appelle à des horizons si lointains, retrouver à nouveau Barbara la

magicienne qui nous guide, nous bouscule nous demande de regarder "à travers", à nous qu'on regarde si souvent "de travers". On a fait des choses incroyables, plongé au cœur du château d'Abbadia, de ses serpents, ses statues, ses sculptures, ses fenêtres et en le mélangeant avec celles du château de l'IME c'était encore plus beau. On ne pensait pas qu'on pouvait faire des œuvres d'art, on n'aurait pas pu faire ce travail sans une artiste.

On a découpé nos photos, pour les coller, les colorer, les mélanger en faire surgir de nouvelles. On a découvert le bruit de l'eau qui se fracasse sur la roche, écouté et enregistré les animaux, on s'est penché, presque couché sur la terre pour mieux la voir, c'était pas facile, bizarre même



## Bestearen lotura

Agnès Nogues,  
pedagogia koordinatzailea  
anogues@pep64.org

**P** RINTZE ttipien eta mago baten ipuina bezala hasi da, elkarrenganako etxekotze batekin, topatu gara, bakoitzak bestea begiradaz galdekatu du, bere hitz laburrekin. Nor zara, zer egiten duzu, zer ikusten duzu, elkar adituko ote gara? Gure trukaketak mezu elektronikoko bidez garatu dira, argazki trukaketak, ikuspegi trukaketak, "gure etxeko" "zure etxe" berri-rako soinu trukaketak.

Horrela, behin etxeko itxitura pasatu eta segidan arrotz bitxiarekin topo egiten duten gutarikoek zure aurkikuntzei erantzun ahal izan dute beren "ingurunea" erakutsiz... Elkarrizketan izan, hauskorra, kaotikoa baina iraunkorra: xinaurri bat ardi baten truk, etxetxo bat leiho ireki baten truk, haritz zut bat banbu malguten truk...

Gutariko batzuk zure behin-behineko eremura batu zaizkizu... ezagutzekoa den lur batera joatea, hain hurbil baina urruneko ortzimugetara eramaten duena, gidatzen gaituen, inarosten gaituen eta, guri, hainbat alditan "zeharka" begiratzen dugunean, "alderik alde" begiratzea eskatzen digun Barbara magoarekin topo egin berriro. Gauza sinesgaitzak egiten ditugu Abbadia diako gazteluan murgildurik, bere suge, estatu,

eskultura, leiho artean, eta IMEko gazteluarekin batuz gero are ederragoa da. Ez genekien artelanak sortzen ahal genituela, artista baten laguntzarik gabe ezin izanen genuen.

Gure argazkiak moztu ditugu, kolatzeko, koloreztatzeko, nahasteko berri batzuk agerrarazteko. Arroken kontra jotzen duen uraren hotsa ezagutu dugu, abereak entzun eta grabatu, makurtu gara, kasik etzateraino, lurra hobe ikusteko, ez zen erraza, bitxia ere baina konfiantza genuen eta gure ohiko beldurrak gainditu genituen. Itsasoak botatako deusaren zatitxoak lotu ditugu behaketarako altxorrek sortzeko... arrazoi genuen, zer nolako poza gure obrak goretziak ikustea erakusketaren kari, lan guztiak bertan, bakoitzaren esperimentazioak... behaketa tresnak mundua gainetik, azpitik, urrunagotik ikusteko kolorezko olerkien gisan, beren obrak erakusten zituzten benetako artistak ginen. Gure paretan artera itzuliak, gure ingurumena aldatua agertu zaigu, beste nolabait eramatea, mugitzea, parekatzea lortu genezakeen. Ideiak, irudimen aleak, gure sorkuntza ongarrria ekarri genuen, eta gure abenturak ernatzen segitzen du, gure irakasleekin, gure hezitzaileekin.

mais on a eu confiance et on a dépassé nos craintes ordinaires. On a assemblé des bouts de rien rejetés par la mer pour en faire des trésors d'observation... on a eu raison, quel bonheur de voir nos efforts magnifiés lors de l'Exposition, là tous les travaux, les expérimentations de chacun ... les outils d'observation comme autant de poèmes colorés pour voir le monde par en-dessus par en-dessous, plus loin, nous étions de vrais artistes qui exposons nos œuvres d'art. De retour dans nos murs, notre environnement s'est révélé différent, on avait pu l'amener ailleurs, le déplacer, le comparer. On a ramené des idées, des graines d'imagination, du terreau pour notre création et notre aventure continue à germer en classe avec nos enseignants, avec nos éducateurs.

Travailler avec Le CPIE et l'artiste en résidence c'est initier un parcours qui continue son chemin en dehors des temps "dédiés". Cela engage les équipes, les enfants. C'est ce qu'on appelle faire du lien, et ce lien n'est possible que dans l'altérité. C'est cela que permet l'équipe du CPIE par ses actions, ses propositions pour construire un monde de dialogue, ouvert, d'oser la rencontre de l'autre, conjuguer forces et fragilités. C'est un engagement qui se décline au quotidien valorisant l'environnement naturel mais aussi humain dans un maillage de proximité. C'est un rouage essentiel qui enclenche un processus qui, tel le battement d'aile du papillon propage ses effets au cœur de nos territoires et dans notre société.



CPIE eta egonaldian dagoen artistarekin lanean haritzea, "eskainitako" denboratik at segitzen duen bidean abian jartzea da. Horrek taldeak eta haurrak engaiatzen ditu. Lotura deitzen dugun horren egitea da, eta lotura hau ezberdinaren ezagutzan eta errespetuan besterik ez da posible. Hori ahalbideratzen du CPIEk, elkarrizketan oinarritua eta irekia den mundu baten eraikitzeko bere ekintzekin, bere proposamenekin, bestearekin topatzera ausartzeko, indarrak eta ahultasunak batuz. Egunerokotasunean gauzatzen den engaiamendua da, natur eta giza ingurumena balioztatuz hurbileko sare batean. Prozesu bat abian jartzen duen baitezpadako gurpila da, tximeletaren hegalkada bezala, gure lurraldearen eta jendartearen barneraino eragiten duen prozesuarena.



# L'invasion de manchots sur la route de la Corniche... Signe d'un changement climatique ou "simple" caprice artistique ?

Elke Roloff, accompagnatrice culturelle  
cpielittoralbasque.creation@hendaye.com

Le jour où il y aura un débarquement de vrais manchots sur nos côtes, il sera certainement trop tard pour se poser ce genre de question. Par contre, le duo Stefano Bonadonna, paysagiste, et Luc Richard, artiste, l'ont posé quand ils ont présenté leur projet artistique pour la Fête de la Corniche, qui se déroule cette année sous le thème de "Océans et Climats".

**L**E TEMPS d'un été, les artistes accueillis dans le contexte d'une résidence de commande artistique, se sont installés pour une durée de deux mois aux serres municipales d'Hendaye pour créer des centaines de pièces de leur installation paysagère "Manchotsdevant". Animaux emblématiques, les manchots symbolisent les enjeux du changement du climat et du bouleversement de la vie des océans qui en résulte. Des châssis dépourvus de leur toile sont installés tout au long de la Corniche et per-

mettent au public de cadrer des points de vue différents et de prendre conscience de notre environnement. L'installation a été conçue pour favoriser l'imaginaire, faire tourner les idées et susciter chez les personnes confrontées à l'œuvre des interrogations quant à notre environnement et aux évolutions climatiques actuelles sans pour autant vouloir y apporter leurs réponses.

Le duo aime se confronter au paysage et à l'histoire d'un site, qu'il qualifie de source d'inspiration. Déjà en équipe, ils ont été lauréats du concours International des Jardins de Chaumont-sur-Loire en 2006 et du concours International des Jardins d'Allariz en Espagne en 2014. Fort de plusieurs années d'expérience dans la maîtrise d'œuvres de paysage et d'œuvres d'art en plein air, ils souhaitent ici impliquer le spectateur avec une installation qui donne accès à un monde imaginaire. Leur travail est décliné en fonction du site pour donner de la pertinence à l'insertion de l'œuvre d'art dans le paysage. Leur méthode de travail est marquée par la réflexion en amont, par le dessin et par la prise en compte des contraintes et des règles d'aménagement. Durant le mois de septembre ils ont partagé leur démarche sous forme d'ateliers participatifs et portes ouvertes destinés au grand public et aux scolaires.

Attendant d'être peints, les manchots sèchent sous les serres surchauffées par un soleil de plomb.

Margotuak izateko zai, pinguinoak iguzki gorriak gain-beroturiko negutegietan lehortzen ari.

## Pinguino inbasioa erlaitzeko bidean... klima aldaketa baten seinale edo kapritxo artistiko "sinplea"?

Elke Roloff, kultur laguntzailea  
cpielittoralbasque.creation@hendaye.com

Egiazko pinguinoak itsasbazterre iritsiko zaizkigularik, horrelako galderak pausatze-ko berantegi izanen da segurki. Aldiz, Stefano Bonadonna, paisaia-antolatzailea, eta Luc Richard, artista, bikoteak pausatzen du, aurtien "Itsasoa eta klima" lematzat duen Erlaitzaren Festarako beren arte egitasmoa aurkeztu dutelarik.

**U**DA baten denboran, manaketa artistikoaren egonaldiaren kari hartuak izan diren artistak, Hendaiko herriko negutegietan kokatu dira bi hilabeterako, "manchotsdevant" izena hartu duen beren paisai-instalazioaren ehunka piezak ekoizteko. Abere-ikurrak, pinguinoek klima aldaketaren apustuak eta, ondorioz datorren bizi eraldaketa irudikatzen dute. Oihalik gabeko koadroak ezarriak dira erlaitzaren luzera osoan zehar, publikoari ikuspuntu ezberdinak koadratzeko aukera eskaintzeko, gure ingurumenaren kontzientzia hartu ahal izateko. Instalazioa, irudimena bultzatzeko asmatua izan da, ideiak itzulikatze, eta obrarekin harrema-

netan sartzen diren jendeen baitan ingurumena-ri eta egungo klima garapenari buruzko galderak sortzeko, horiei erantzunik ekarri nahi izan gabe.

Bikoteak, inspirazio iturri deritzon eremuaren paisaia eta historiari heltzea atsegin du. Jadanik elkarrekin arituz, Chaumont-sur-Loireko Baratzteen nazioarteko lehiaketan txapeldunak izan ziren 2006an, baita Galiziako Allarizko baratzteen Nazioarteko lehiaketan ere, 2014ean. Urte askotako paisai antolaketan eta kanpoko arte obren esperientziaz jantzirik, aldi honetan ikusle mundu baterako sarbidea ematen duen instala-

**Stefano Bonadonna**,  
Architecte Paysagiste italien né à Turin  
le 3 novembre 1965, vit en France depuis  
1994. Il travaille depuis dix ans en tant  
qu'indépendant ou en agence sur toutes  
les phases de projet pour des maîtrises  
d'œuvres, de jardins et des études de  
paysage. Actuellement il prépare (entre  
autres) un projet de maîtrise d'œuvre  
participative avec les habitants pour un  
parc privé au sein d'une copropriété.

[Stefanobonadonnapaysagiste?jmdo.com](http://Stefanobonadonnapaysagiste?jmdo.com)

**Luc Richard**, Artiste français  
né à Paris le 12 décembre 1975,  
vit et travaille à Bordeaux. Il a à son  
actif plusieurs installations dans  
le paysage et plusieurs années  
d'expérience dans la fabrication  
et la restauration d'œuvres d'art à  
petite et à grande échelle. Il utilise  
entre autres le bois, l'acier, la résine,  
les objets de récupération en  
privilégiant le travail in situ. Il aime  
l'idée d'art populaire loin du milieu  
parfois austère des galeries.

[Lucrichard.jimdo.com](http://Lucrichard.jimdo.com)

Luc Richard et Stefano Bonadonna  
en plein travail sous les serres municipales d'Hendaye



Luc Richard eta Stefano Bonadonna  
lanean Hendaiako herriko negutegietan

**Stefano Bonadonna**, Paisai-  
antolatzailea, Turin-en (Italia) 1965eko  
azaroaren 3an sortu zen, eta Frantzia bizi  
da 1994 geroztik. Duela 10 urte indepen-  
dente gisa edo agentzian ari dela fase  
guztietan, arkitekto-teknikoan, baratzetan  
eta paisai ikerketetan. Une honetan, jabetza  
partekatuta baterako parke pribatu baten  
sortzean ari da lanean (besteak beste),  
biztanleekin partaidetzan.

[Stefanobonadonnapaysagiste?jmdo.com](http://Stefanobonadonnapaysagiste?jmdo.com)

**Luc Richard**, artista,  
frantsesa, 1975eko abendu-  
aren 12an sortu zen, Parisen, eta  
Bordalen bizi eta lan egiten du.  
Paisaian txertaturiko hainbat  
instalazio egin ditu eta neurri txiki  
eta handiko arte lanen konponke-  
tan eta sorkuntzan urtetako es-  
perientzia dauka. Egurra, altzairua,  
erretxina, berreskuraturiko gaiak  
baliatzen ditu besteak beste, eta  
lekuan bertan (in situ) lan egitea  
lehenesten du. Arte herritarra-  
ren ideia atsegin du, galerien giro  
batzuetan hotzetik urrun.

[Lucrichard.jimdo.com](http://Lucrichard.jimdo.com)

zio baten bidez. Beren lana, eremuaren arabera  
egokitua da, arte lanaren paisaiaren baitako txer-  
tatzeari egokitasuna emateko. Beren lan moldea  
gogoeta batekin hasten da, marrazketarekin eta  
antolaketa baldintzen eta arauen kontuan hartze-  
arekin. Irailean zehar beren izapidea partekatuta  
dute publiko zabalari eta ikasleriari zuzenduriko  
tailer parte hartzaileen eta ate irekitzeen bidez.

# Pottorroek eta pinguinoek lepo beretik burua?

Ganix Grabières, Abbada Eremuko Kontserbadorea

ggrabieres@hendaye.com

**G**UTARIKO anitzek ez dituzte hurbil diruditen bi espezie horiek ezberdintzen. Alta, ezberdintasunak nabarmenak dira!

18 pinguino espezieak, pinguino enperadore ederra barne (beheko argazkia, Hannes Grobe/AWI), gure etetik urrun bizi dira, hego hemisferioan, eta hegala hain txikiak dituzten ezin duela horietariko espezie bakar batek ere hegan egin.

Itxura orokorrak nahas bagintuzke ere, pottorroek (eskuinaldeko argazkia, Jack Spellingbacon) ipar hemisferioan bizi dira, hegan egin dezakete eta ez dira famili berdinekoak.

Horrela, Kantauri itsasoan, arrantzaleek Martintxu deitzen zuten pottorro arrunta (*Alca torda*) dugu, baita *Alcidae* famili honetako beste bi espezie ere: Martin arrunta (*Uria aalge*), Txingudiko badi-an ikusten ahal dena askotan, eta Laperna-musu famatua (*Fratercula artica*), itsas-papagaia goitizena ekarri dion bere

moko koloretsu ederrarekin. Itsasora botatzen diren gasolio-isurketen eta marea beltzen kalteak anitz pairatzen dituzten hiru espezie dira...

